




SENTIMENDU EKONOMIKOA

Euroguneko sentimendu ekonomikoak ezkortasun txiki bat erakusten jarraitzen du

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2025EKO OTSAILA

96,3




Otsailean, Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoak hobekuntza txiki bat izan zuen aurreko hilabeteekin alderatuta. Hain zuzen ere, euroguneko indizea 96,3raino igo zen, eta indize hori oraindik ere batezbesteko historikoaren (100) azpitik dago. Atalkako analisiak adierazten du industria dela batez bestekotik gehien urruntzen dena, azken bi hilabeteetan norabide onean urratsak eman dituen arren.

Familien konfiantzak ere zertxobait hobetu ditu emaitzak, baina oraindik ez da gai irudi baikorrik erakusteko. Beste aldetik, zerbitzuak batez bestekoaren inguruan kokatu dira, gorabehera txiki batzuekin. Txikizkako merkataritzak eta, bereziki, eraikuntzak hainbat hilabete ka-teatu dituzte baikortasuneko eremuan murgilduta. Europar Batasunaren egoera eurogunekoaren antzekoa da, baina bere indizea 97,1ean dago kokatuta.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2025EKO OTSAILA

97,1




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdekako azterketak erakusten du euroaren eremuko lau ekonomia nagusietan alde handiak daudela. Deigarria da Alemaniaren kasua (89,3), egoera normalizat har litekeenaren oso azpitik dagoelako. Eraikuntza izan ezik, gainerako atal guztiak batezbesteko historikoaren oso azpitik daude, bereziki industria, baina baita zerbitzuak ere. Frantziaren kasuan (98,3), hilabete batzuetan erakutsi duen ahultasuna amai-erara iristen ari dela dirudi, nahiz eta atal batzuk, hala nola txikizkako merkataritza eta eraikuntza, baikortasunetik urrun dauden.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Italiak (99,8) urtebete baino gehiago darama bere batez besteko historikotik oso hurbil dauden balioak erregistratzen, alde batera edo bestera aldaketa gutxirekin. Eraikuntzan eta txikizkako merkataritzan indar handia hautematen da. Azkenik, Espainia (102,3) da batez bestekoaren gaineratik argi eta garbi geratzen den herrialde bakarra, nahiz eta azken hilabeteetako gorabeherak nabarmenak diren. Eraikuntzaren une ona azpimarratu behar da, baina industriak indar pixka bat galdu du.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.